

KOKAINA


KOKAINA ERABILTZAILLEENTZAKO KOMIKI INFORMATIBOIA



SANTI ORUE / 05


ailaket!!

Kokaina faltsututa iristen zaigu, eta zenbateraino dagoen faltsututa non, noiz eta nori erosi diozun baldintzatuko du. Normalki nahasten zaizkion gaiak azukrea, igeltsua, analgesikoak, kafeina, anestesiko lokalak(lidokaina, prokaina...) izan ohi dira.



Hau ene politarentzat, hau amarentzat, eta beste hau nire gameluarentzat, zikinkeriarik botatzen ez dion horrentzat!

Neurria desberdina izaten da pertsona bakoitzarentzat. Zeure neurriaz jabetzeko zenbait gauza kontutan hartu beharko dituzu: zenbaterainoko sustantzia purua den, sustantzia hori hartzeko dugun ohitura, norberaren pisua, gai suspergarri hauenganako sentsibilitatea... pixkanaka hastea izango duzu hobekien.



Zotz! Horregatik beharko du Maradonak asetzeko izugarritzko marra pila hori!

MARADONA
OTRA VEZ

Suspergarriek aparteko energia ematen digute, gorputzak gero errekuperatu beharko duena. Horregatik ondoko egunetako nekea, gogorik eza, erraz haserretze hori...

Aiba txabeas!

Ez al duzu gaur guztiokin pulsurik egin nahi?

Uutikan
kirten aleena!



Kokaina sartzerakoan gorputza pixkanaka zahartzen joango zaigu, bizi organoek are lan handiagoa egin behar baitute.

Beraz...25 beharrean 35 dauzkat!

Kasu ile urdinei, aditu?

ei goazeman..



Gutxieneko dosi eraginkorra 20-30 mg (marra bat) dira, eta ondorioz desinhibizioa dakar, euforia eta hizketarako gaitasun handiagoa izango dugu. Aldiko dosia 120 miligramotik gora (3-4 marreatik gora) behingoan sartzeak ezinegona, ondoeza, eta norabiderik gabeko jokaera eragingo digu.



Kokainak neurritz kanpo kontsumitu arazteko gaitasuna dauka (behin eta berrin sartzeko irrika) eta mendekotasun psikiko arriskutsua bilakatu daiteke: maila psikologikoan erraz haserretzea eta depresioa; eta maila fisikoan neke kronikoa, desoreka afektiboa eta diru galera galanta dira ondorio kaltegarrietako batzuk.



Kokaina kontsumitzeko modu desberdinak daude:

- Sudurretik sartzea ohikoena da.
- Zainetatik xiringa bidez arriskutsuena da.
- Zigarroekin erretzea(txinoa) garestiena aterako da erretzerakoan ia guztia deuseztatzen baita.

Ze, erreko al
dugu zigarro
txino bat?

Ez, hobe gramo osoa goraka jaurti eta
erortzen diren apurrak sudurretik sartu!

Kaikua!

Saia zaitez ez egunero edota jaiero kontsumitzen, ez
dadila zure bizi grina bilakatu.

Zubian mendira joango gara,
eta zuk zer egingo duzu?

Betikoa uste dut...



Sudurretik sartzean arnasketa bidea izorratzen zaigu, eta hori pixka bat ekiditeko, etxeraterakoan ona da sudurra itsasoko gatza eta ur epela edo gazura nahastuta garbitzea. Ahoa ongi garbitzea bezain garrantzitsua da sudurra ongi garbitzea.

Zertan ari zara?


Hortzak garbitzen, ona da-eta

Ba hobe duzu sudurra garbitzea hortzak baino lehenago eroriko zaizu eta



Hamaika gaixotasunekin kutsatu gaitzke sudurretik sartzerakoan billete edo tururu berbera erabiltzen badugu: katarroa, hepatitis Ca, tuberkulosia... egokiena norberak bere erabili eta botatzeko hoditxo erabiltzea da. Izan ere, sartzen al duzu inoiz billetearik ahoan, edo inori zure hortz eskuila uzten?

Alkoholik edan ez baina nahiago duzue gibela hoditxo berbera erabilita izorratu?



Sudurretik sartzean arnasketa bidea izorratzen zaigu, eta hori pixka bat ekiditeko, etxeraterakoan ona da sudurra itsasoko gatza eta ur epela edo gazura nahastuta garbitzea. Ahoa ongi garbitzea bezain garrantzitsua da sudurra ongi garbitzea.

Zertan ari zara?


Hortzak garbitzen, ona da-eta

Ba hobe duzu sudurra garbitzea hortzak baino lehenago eroriko zaizu eta



Hamaika gaixotasunekin kutsatu gaitzke sudurretik sartzerakoan billete edo tururu berbera erabiltzen badugu: katarroa, hepatitis Ca, tuberkulosia... egokiena norberak bere erabili eta botatzeko hoditxo erabiltzea da. Izan ere, sartzen al duzu inoiz billetearik ahoan, edo inori zure hortz eskuila uzten?

Alkoholik edan ez baina nahiago duzue gibela hoditxo berbera erabilita izorratu?



ailaket!!

Ai laket!!-en kontsumo arduratsuaren eta erabilerak eragindako arriskuen ikuspuntutik autogestioaren askotariko sustantzia psikoaktiboekin bizitzen ikastearen aldeko apostua egiten dugu.

Izan ere, drogak kontsumitzea ala ez, pertsona helduek informazioa jaso ondoren askatasunez hartu beharreko erabakia dela uste du. Ai laket!!-en asmoa, beraz, ez da erabaki horren gainean eragina izatea, baizik eta informazio zehatza, praktikoa eta sinesgarria eskaintzea, kontsumitzeko erabakia hartzekotan, erabakia ondo hausnartutakoa izan dadin eta kontsumitzaileek zentzudun jokatzeko informazioa izan dezaten.

 www.ailaket.com - ailaket@ailaket.com
Ai Laket!! Tel: 945 23 15 60

Jesusen Mirabeen Sortzailearen kalea,
40 etxabe.
01001 Vitoria-Gasteiz (Araba)

argitaratua:

ailaket!!

laguntzaileak:



egilea:

SANTI ORUE